



Usurbilgo Udala

USURBILGO UDALEKO ADINEKOEN PUNTAPAX EGUNeko ZENTRORA ERABILTZAILAK ERAMATEKO GARRAIO ETA LAGUNTZAILE ZERBITZUA KONTRATATZEKO ESKAKIZUN TEKNIKO ZEHATZEN ORRIAK

1. OBJEKTUA

Eskakizun teknikoaren orri hauen objektua da Usurbilgo Udalaren Adinekoen Eguneko Zentrora Usurbildik doazen erabiltzaileentzako garraio eta laguntzaile zerbitzua kontratatzea, indarrean dagoen araubidearen arabera.

2. ESLEIPENDUNAK BETE BEHAR DITUEN BALDINTZAK

A) Giza bitartekoak

- Zerbitzua eman ahal izateko furgonetan joango diren langileak: gidaria eta laguntzailea.
- Garraio zerbitzua emateko langileek beharrezkoa den oinarrizko prestakuntza izan beharko dute: furgonetaren gidariak garraiorako erabiliko den ibilgailua gidatzeko beharrezkoak diren gida-baimenak izango ditu eta gidariarekin batera ibilgailuan joango den laguntzaileak lehen sorospenetan eta pertsonen mobilizazio eta transferentzia zein plataforma, zein gurgildun aukietako lotze sistematan formakuntza eta ezagutza izan beharko du.
- Kontratatzen den enpresak langilegoa ordeztu beharko du beharrezkoa denean eta gaixotasun, opor, baimen, baja eta abarrek sortutako absentziak estali beharko ditu zerbitzuaren eraginkortasuna bermatzeko. Hau modu egokian ez betez gero, Administrazio Baldintza Zehatzetan zehazturikoa beteko da.
- Enpresak larrialdi egoerei aurre egiteko protokoloa izango beharko du

B) EGIN BEHARREKO BIDAIK

Bidaiak udal Gizarte Zerbitzuen sailak Usurbilgo udalerrian finkaturiko jasoera puntu ezberdinetatik Usurbilgo Kalezar 15 helbidean kokaturiko Adinekoentzako Puntapax Eguneko Zentrora izango dira:

- a) Joaneko bidaia: Erabiltzaileak jasoera puntuetatik jaso eta eguneko zentroan utzi.
- b) Etorrerako bidaia: Erabiltzaileak Eguneko Zentrotik jaso eta jasoera puntuetan utzi.



Usurbilgo Udala

Jasoera puntuak lekuz aldagarriak izan daitezke, udal Gizarte Zerbitzuek finkaturikoaren arabera.

Horrez gain, eta salbuespenez, Usurbilgo udalak Usurbilgo Adinekoen Eguneko Zentrora doan erabiltzailearen bat Usurbilgo Udalerritik kanpo jaso behar dela erabakiko balu, eta beti ere Gizarte Zerbitzuen saileko proposamen eta oniritziarekin, esleipenduna zerbitzua ematera behartuta egongo da, plegu administratiboetan zehazturiko moduan.

Ibilgailuaren plaza kopuruaren arabera, joaneko eta etorrerako bidaia bat edo bi egin beharko dira, astelehenetik ostiralera eta, printzipioz, larunbat, igande eta jai-egunetan bidaia bakarria (erabiltzaile gutxiago egoten direlako). Dena den, erabiltzaile kopurua aldatzearen ondorioz bidaia kopurua aldatu liteke, prezio unitarioak diren heinean. Udalak erabiltzaileak ahalik eta denbora gutxien ibilgailuan pasatzea eta 9:30an zentroan egotea lehenetsiko du.

Joaneko edo etorrerako bidaiaren iraupena erabiltzaile guztiak bidaia bakarrean edo bi bidaiatan eramaten direnaren araberakoa izango da. Erabiltzaileak bi bidaiatan eraman edo ekartzen badira (erdiak eta erdiak) joaneko bidaiaren iraupena 45 minutukoa da baita etorrerako bidaiarena ere, gutxi gora behera.

C) ERABILTZAILE KOPURUA

Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politikako sailak onarturiko plaza-kopurua eta modalitateak: Egoitzak eguneko zerbitzua une honetan gehienez 18 laguni emateko aukera dauka, lanegun ordutegiarekin, hots, astelehenetik ostiralera, eta denetara 6 laguni asteburu eta jai egunetan. Edozelan ere, ezin da zehatz kuantifikatu, izan ere, plegu honetan adierazitako hitzetan, sortzen diren beharren araberakoa denez, ez da bermatzen zerbitzua ematearen kopuru zehatzik.

Bestetik, Gipuzkoako Foru Aldundiarekin hitzarturikoaren arabera egokituko dira plaza kopuruak. Zentzu honetan, lizitatzailerei zera jakinarazten zaie: Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politikako Departamentuak Usurbilgo eguneko zentroan hitzarturiko plazen kopurua aldatzea aurreikusi du, jaiegunetako plazetan 6 plaza gehituz, eta hori 2017ko urriaren 31ean onartzea eta 2017ko azaroaren 1etik aurrera ondorioak izatea. Dena den, oraindik ebatzi gabe dago eta hortaz udalak ezin ditu une honetan plaza ziurtat jo.

Foru Aldundiak 7/2015eko dekretuan jasotako irizpideekin bat egiten du Usurbilgo Udalak leku erreserba eta dagokion ordainketari dagokionarekin ere.



Usurbilgo Udala

D) EGIN BEHARREKO JARDUERAK

- Eguneko Zentroko erabiltzaileak Udalak izendatzen dituen gunetatik Eguneko Zentrora eta Eguneko Zentrotik Udalak izendatutako gunetara eramatea. Udalaren eskumena izango da Eguneko Zentroaren erabiltzaileak jasotzeko guneak izendatzea. Halaber, gune hauen kokaguneak aldatu daitezke, sortu daitezkeen beharren edo erabiltzaileen bizileku aldaketaren arabera.
- Garraio-zerbitzua emateko ezinbestekoa izango da Udal Gizarte Zerbitzuen eta zerbitzua emango duen enpresaren edo erakundearen arteko koordinazioa. Esleipendunak harremanetarako pertsona bat izendatuko du eta edozein arrazoiengatik esleipendunak izendatutako pertsona beste langile batengatik ordeztzen badu, Udalari jakinarazi beharko dio eta aldaketak Udalaren onespena izan beharko du.

E) GARRAIO-ZERBITZUA EMATEKO ORDUTEGIA

Gaur egungo ORDUTEGIA honako hau da:

- Erabiltzaileak Puntapax Eguneko Zentrora eramateko zerbitzua goizeko 8:30ak baino lehen ez da hasiko, astelehenetik ostiralera (joaneko bidaia). Larunbat, igande eta jai-egunetan, ostera, 8:45etan.
 - Erabiltzaileak Eguneko Zentrotik Udalak izendatutako gunetara eramateko zerbitzua 16:45an hasiko da astelehenetik ostiralera (etorrerako bidaia). Larunbat, igande eta jaiegunetan 17.15etan.
- *Salbuespen egoerak gizarte-zerbitzuak ontzat eman beharko ditu.

-EGUTEGIA.

Usurbilgo eguneko zentroa urteko egun guztietan irekia egongo da egun hauek izan ezik; urtarrilaren 1a, urtarrilaren 6a, abenduaren 25a eta Udalak urtero herriko jai eguna izendatzen duen egunean (egun hauetan ez da garraio zerbitzurik eman beharko). Bestela, urteko gainerako EGUN GUZTIETAN eman beharko da zerbitzua.

Dena den, Udalak Eguneko Zentroko egutegi eta ordutegia moldatzeko aukera duenez, horrek garraioko egutegi eta ordutegian eragin dezake.

F) BITARTEKO MATERIALAK

Zerbitzua eman ahal izateko mugikortasun urriko pertsonen garraiorako egokitutako ibilgailua erabiliko da. Gaur egungo egoeran, aukerarik gomendagarriena zerbitzua bi bidaietan egitea dela baloratzen du



Usurbilgo Udala

udalak. Gutxieneko ezaugarri hauek izan beharko ditu ibilgailuak:

- Plaza kopurua (gidaria eta zaintzailearen plaza kenduta): Gutxienez 8 plaza izango ditu.
- Mugikortasun urriko pertsonentzako plataforma jasotzailea edota sartzeko arrapala izatea.
- 2 gurpildun aulkientzako ainguralekuak.
- Finkapen-uhalak.
- Aire-girogailua.

Ibilgailu mota eta eman beharreko zerbitzua kontutan izanda, legeak ezarritakoaren arabera baimen guztiak eduki beharko ditu ibilgailuak. Nahitaezkoak diren agiriak egunean egon beharko dute. Ibilgailua matxuratzen bada, kontratatzen den enpresaren ardura izango da berehala ezaugarri berdineko beste ibilgailu batengatik ordezteak. Edozein kasutan, ordezeko ibilgailuak eskaturiko baldintza guztiak bete beharko ditu eta udalak hori horrela ziurtatuko du aldatzeko baimena eman aurretik.